

Tokiko praxietan oinarrituriko demokrazia parte-hartzaileak

Montse Rosa eta Javier Encina

**Partaidetzako ikerketeko espezialista-ikastaroaren koordinatzaileak
Pablo de Olavide Unibertsitatean. Sevilla**

Ikerketa-ekintza parte-hartzailean oinarrituta, zenbait praxi eraikitzen lagundu dugu lau udalerritan: Pedreran, Sevillako hegoaldeko mendilerroan, 1996 eta 1997 artean; Santiponcen, Sevillako metropoli-barrutian, 1998 eta 1999 artean; Bollullos Par del Condadon, Huelvako ekialdean, 2002an; eta Cabezas de San Juanen, Sevillako hego-ekialdean, 1999 eta 2003 artean. IU-LV-CAk gobernaturiko 20.000 biztanletik beherako herrialdeak dira laurak. Artikulu honetan, eraikitako praxi horiek azaldu nahi ditugu. Lau ikerketa horietan, tokian tokiko demokrazia parte-hartzailea sortu eta sustatu nahi izan da. Emandako datu horiekin ez dugu adierazi nahi ezin denik lan egin beste alderdi batzuek gobernatzen duten udalerrietan, biztanle gehiagoko udalerrietan edo tokian tokiko esperientziatik harago; batera lan egin dugun espazioetako datuak besterik ez dira.

Based on participatory research work, we helped set up several research projects in four municipalities: Pedrera, in the southern mountain range of Seville 1996-1997; Santiponce, in the Seville metropolitan area, 1998-1999; in Bollullos Par del Condado in the eastern part of Huelva province in 2002, and in Cabezas de San Juan in the south-eastern area of Seville province, 1999-2003 where, in all four provinces, all town under 20,000 inhabitants are governed by IU-LV-CA. In this article, we wish to provide an explanation of those research projects that have been built up. In those four research papers, the desire has been for a participatory democracy to emerge and be sustained at the local level. With these data, we do not wish to state that nothing can be achieved in municipalities where other parties are in power or with greater populations or beyond the local scope: the data is simply that which we have collaborated on in the areas we did.

Gure garaiko baldintza berrietan, administratzeko gaitasuna —gai orokorren kudeaketan parte hartzeko gaitasuna— areagotzeko, beste pertsona batzuekin askoz gehiago nahasi beharra daukagu, eta hori lortzeko modu bakarra gure soziabilitatea zabaltzea eta antolatzea da. Hori da eman zaigun potentzialitate handia, eta, era berean, hori da gure garaiko ezbeharra; izan ere, besteekiko dugun dependentzia onartuz eta baloratuz bakarrik lortuko dugu askeagoak izatea.

Pietro Ingrao (1977:210)

Lehenik eta behin, sinesgaitza dirudien arren, defendatu behar dugu zientziak konpromisoa hartu behar duela pertsonen bizitza duinduko duten gizarte-moduak eta esperientziak eraikitzeko, gizarte-mugimenduekin eta jendearekin batera lan eginez¹. Zientzia ezin da izan gizartea alhora utzita ezagutza objektiboa sortzen duen zerbait, gaur egun hori defendatzen den arren. Izan ere, mundua hondatzen duten ankerkerien —esaterako, gerren— gaizkide eta erantzule bihurtzen du horrek. Jendeari ateratzen zaion objektibo usteko ezagutza hori hizkuntza ulergaitzeko txosten batean jartzen da, eta, ondoren, gehien ordaintzen duenari ematen zaio; edo, bestela, *formatu astunean* argitaratzen da. Beraz, ordaintzen dutenek edo hizkuntza hori ulertzen dutenek bakarrik erabil dezakete. Jendeak, hori erosteko dirurik ez izateaz gain, ez du hizkuntza hori ulertzen; beraz, ikerketak ez dio onurarik ekarriko. Kasurik onen eta gogotsuenean, zerbitzu modura itzuliko zaio. Tomás Ibáñez-ek (1995:38-40) dioen moduan:

Zentzuzkoa dirudi onartzeak enpresa zientifikoek nahiz ideologia zientifikoek zerikusia dutela naturaren eta jendearen gain gauzatutako botere-jardueretan. Izan ere, ezin da ukatu zientzia dela gaur egungo botere-tresnarik eraginkorrenetako bat (...) Gaur egun, beharrezkoa da arrazoi zientifikoari erasotzea; baina ez ezagutza zientifiko deuseztatzea, egia erretorika gisa funtziona ez dezan baizik. Bestalde, bide horretan aurrera egiteko, aurrez erlatibismoarekiko beldurra menderatu beharko dela uste dut.

Jendearekin batera beharrak eta behar-asetzaileak (*'satisfactoros'*) eraikiko dituen zientzia behar dugu. Era berean, zientziak lagundu egin beharko du eguneroko harremanetan denbora eta espazioa bizitzeko moduak eraikitzen, indibidualtasunaren eta kolektibotasunaren artekari izan daitezen.

1. Parte-hartzea

Jakina, parte-hartze edo partaidetza terminoa ez da gauza berria. Gizarte eragile eta agente ugari erabili dute hainbat helburu lortzeko: diskurtsoan erabiltzen da, gero jardueretan gauzatzen ez den arren; edozein aldatetari ekiteko aitzakia ere izan daiteke; baita ekintzaren baten eraginkortasuna ziurtatzeko nahitaetzko arrazoia ere; edo, nola ez, gizarte-kontrolerako tresna ere izan daiteke. Horrek guztiak parte-hartze edo partaidetza kontzeptua ia edukirik gabe utzi du, eta ideologikoagoa eta hutsagoa bihurtu du.

1. Guk parte hartutako beste ikerketa batzuk ere aipa ditzakegu —horietan batera aritu ez garen arren—. Ikerketa horiek beste indar politiko batzuek gobernaturiko udalerrri ertain edo handietan egin ditugu: Sevillan, Alcalá de Guadaíran, Camasen eta Ginesen.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, talde marjinalak gizarte-sustapenerako eta prebentziorako programetan sartzeko mekanismotzat jotzen zen: ezarritako gizarte-ordena deslegitima zezaketen gizarte-tentsioen kontrolari lotuta zegoen. Badirudi, gaur egun, lotura handiagoa duela Estatuaren eta Administrazio Publikoen demokratizazioarekin; eta ekintza publikoei bideragarritasun eta eragin-kortasun handiagoa ematen dienez, badirudi balio estrategiko handiagoa duela. Beraz, ordutik hona, hainbat bide urratu dira.

Askoren ustez, *demokrazia ordezkatzaillearen krisi-garaian* gaude (Tarso Genro, 1998; T. Rodríguez Villasante, 1998; Julio Alguacil, 2000; C. J. Navarro, 1999), eta, horrexegatik, Estatuaren eta gizartearen beraren demokratizazio-maila handiagoak lortu nahian gabilta. Testuinguru horretan, parte-hartzearen hiru adiera aipa ditzakegu, gutxienez. Horiek espazio eta denbora berean erabiltzen dira; sarriegi erabiltzen dira, eta mezu eta ekintza kontrajarriekin; horren guztiaren ondorioz, gizarteak demokrazia arbuia dezake.

Lehen kontzeptualizazioa esaldi honetan labur dezakegu: *parte-hartzea udalak antolaturiko jardueretara joatea da*. Horren arabera, parte-hartzea unibokoa da: herritarra horra joandako erabiltzaile bat besterik ez da, zerbitzua jasotzen duen norbait; lau urtean behin bozkatzeko betebeharra dauka, eta hori bakarrik egin dezake. J. Ibáñez-ek (1997:63) dioen moduan:

Demokrazia formalak parte hartzeko aukera ematen du, baita parte-hartze hori mugatu ere. Aukera ematen du, demokraziari esker, herritarrek bozkatu egin dezaketelako. Mugatu egiten du, herritarrek bozkatu besterik egin ezin dutelako. Hori da demokraziaren eduki totalitarioa. Partaidetza-maila handiagoa debekatuta dago.

Administrazioa	Zerbitzuak	Erabiltzailea
----------------	------------	---------------

Bigarren kontzeptualizazioa zerbitzuen hobekuntzan parte hartzean datza, kontsumitzaile arduratsua izanez: hauteskunde-programak irakurtzeaz gain, bete daitezen eskatu behar da; iradokizun-postontziak erabili behar dira; eta parte izan zareneko jarduerak ebaluatu behar dira, teknikariek horretarako sortutako galdera-sortak erabiliz.

Administrazioa	Zerbitzuak	Kontsumitzaile arduratsua
----------------	------------	---------------------------

Hirugarren kontzeptualizazioa Tarso Genro-ren aipu honetan (1998:27) labur dezakegu:

Demokrazia erabat demokratizatzea da kontua; mekanismoak sortzea demokraziak biztanleriaren gehiengo nagusiaren interesei erantzun diezaien; eta erakunde berriak sortzea —lehengoak berrituz edo deuseztatuz—, etorkizunari buruzko erabakiak erabaki konpartituak izan daitezzen. Demokraziaren alorrean, konpartitzeak erabakitzeko modu berriak hitzartu ahal izatea esan nahi du; hau da, sufragio unibertsal bidez hautatutakoen (ordezkari politikoen) eta zuzeneko parte-hartze bidez hautatutakoen (gizarte-mugimenduetako kideen) artean erabakitzeko modu berriak hitzartzea.

Administrazioa		
Hirugarren Sektorea	Eraikuntza kolektiboa	Herritarrak

Beraz, parte-hartzeak egungo zenbait balio aldatzen ditu, botereak birbanatzen dituen mekanismo gisa aritzen baita. Baina, alde politiko horrez gain, parte-hartzeak sustaturiko garapen pertsonal eta komunitarioa ere azaldu nahi dugu; izan ere, Estatu-mailan eragiteaz gain, prozesu parte-hartzaileetan sartuta dauden subjektuen autonomiaren garapenean ere eragiten du. Maila pribatuaren eta estatu-mailaren artean espazio batzuk sortzen dira: sozializazio-guneak. Horietan, erabakien deszentralizazio eta autonomizazioaren bidez egiten da lan nagusiki; horri esker, gizarte-eragileek beren errealitatea eraiki dezakete eta Estatuarena dena publiko bihurtu. Humberto Vargas-ek (1999:15) honako hau dio gizarte-partaidetzari buruz:

Parte hartzeko espazioak eta bideak ugaritu behar lituzke, aldaketak sustatu eta, azkenik, biztanleriaren benetako eskariak gauzatu.

Honela jarraitzen du:

Gure ustez, horrelako parte-hartzea lortzeko, egitura-eraldaketa handiak egin beharko lirateke. Prozesu horretan, hainbat indarrek esku hartzen eta jarduten dute, era askotako interes konplexuek bultzatuta maiz, baita interes antagonikoek bultzatuta ere. Ulertu beharra dago, beraz, parte-hartzeak ez duela beti adostasuna ekartzen (horren aldeko batzuek hala dioten arren); izan ere, interesen konfrontazio soilak ideologi hausturak ekar ditzake, eta aldaketak eragin ditzake gizarte- eta politika-indarren arteko korrelazioan. Bestalde, ulertu beharra dago parte hartzeak arriskuan jartzen dituela botere-mekanismoak; ez politika sistemako botereak bakarrik, baita gizarte zibilean dauden erlazio asimetriko, sakabanatu eta zehaztugabeetakoak ere.

Parte-hartze hori informazio, laguntza edo kontsulta soiletik harago doa: herritarrek guztiei eragiten dieten erabakietan —eta, oro har, gai publiko guztietan— parte hartzeko eskubidea izatea lortu nahi da. Horixe da, gure iritziz, benetako aldaketak eragin ditzakeen parte-hartzea, egungoak bezain baztertzailak ez diren bizitza-moduak ekarriko dituena. Errazagoa da hori *giza eskalan* gauzatzea, eta horrexegatik du hainbesteko garrantzia tokikotasunak.

Oinarri komunitarioa duen tokian tokiko eredu parte-hartzailearen elementuak

	Helburuak	Mekanismoak	Eraitzak
BIRPOLITIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> – Eredudefinitzea. – Alderdiguztien erantzukizunak zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ereduarerbalioak azaltzea. – Informazio-estrategiak sortzea – erabakigarria. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ereduhoriek gizarte-praxietar gauzatzea.
PARTE-HARTZEA	<ul style="list-style-type: none"> – Ekintzerprodukzioaren, plangintzarereta kudeaketaren deszentrazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> – Deliberazio-espazioak mailaguztietar(eskalako nahiz prozesuetak maila guztietan). 	<ul style="list-style-type: none"> – Beharrereta gogobetetzailen definizio pluralista.
ESTRATEGIAK	<ul style="list-style-type: none"> – Helburu estrategikoak (politikoko teknikoak, herrikoak) lotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ingurunek joerak denek parte hartuz analizatzea. – Antolaketa-analisia. 	<ul style="list-style-type: none"> – Helburu estrategikoak bideragarri gingo dituzter jardun bideak abiarazte aet horien jarraipen egitea.

Gizarte-ekimenean sartuko diren eta hori dinamizatuko duten prozesu eta estrategietan egin behar da lan. Prozesu horiek gogoeta eta ekintzarako espazioak sortu behar dituzte, tokiko mailan —herritarren parte-hartzearen bidez— nahiz

tokiko mailaz gaindi —deszentrazio-prozesuak azpimarratu behar dira; izan ere, horrela, komunitateen behar eta potentzialitateen arabera egin ahal izango da lan, denen partaidetzaz eraikitako ikuspegi estrategikoan oinarrituta—.

Nahitaezkoa da eredu teorikoetatik jauzi bat egitea horiek bideragarri egingo dituzten eskumen, baliabide, metodologia eta praktiketara: beharren eta behar-asetzaileen definizio pluralista batetik ekingo diogu zeregin horri. Kontuan izan behar dugu ezin direla bereizi kudeaketa-ereduak eta gizarte-garapeneko ereduak. Bestalde, kontuan izan behar dugu beharrezkoak direla zenbait metodologia; erabiltzaile izatearen gainetik, herritar izatea aitortzen eta sustatzen duten politika publikoak praktikan jartzeko lanean diharduten metodologiak, hain zuzen. Beraz, nabarmendu nahi dugu, erabakiak hartzeko eta kudeaketarako espazio berriak sortu behar direla hain burokratikoak eta administratiboak ez diren espazioak, komunitarioagoak baizik —hau da, komunitateak parte hartzekoak—. Ezbairik gabe, honako hau da horretarako ardatz nagusietako bat: tokikotasuna hartzea eta balioestea, partaidetza bidez politika integraletan lan egiteko eremutzat; hau da, gizartea, ekonomia, kultura eta ingurumena... partaidetza bidez lantzeko eremutzat.

Dudarik gabe, horrek eragin handia izango du erakundeek esku hartzeko dituzten metodoetan: horiek berriro eraiki behar dira, prozesu berriak sortzen laguntzeko. Prozesu horietan, tokiko administrazioaren funtzioa gizarte mobilizazioaren/dinamizazioaren aldekoa izango da, ez eredu burokratiko eta gerentzia-lena. Habermas (1987) parafraseatuz, Estatuak eta komunitateak elkar onartzeko espazio bat sortzea esan nahi du, Sistemak *bizitzaren mundua kolonizatu* ez dezan.

Zalantzarik gabe, berriro ere konplexutasunaren ideiarekin egin dugu topo.

Bizitzaren mundua ulertzea gizarte-errealitatea askotariko artikulaziotzat jotzea da: prozesu mikrosozialen arteko eta egitura-koiuntura mikrosozialen eta egitura-koiuntura makrosozialen arteko artikulaziotzat, hain zuzen (...) Konplexutasun ideiarekin arabera, nahitaezkoa da prozesuak ahalik eta osagarrienak izatea elkarren artean; hots, gizarteko subjektuen praxiaren esku-hartzeak zehaztutako prozesuak eta egiturazko prozesuak (J. Alguacil, 2000:22).

Akoplamendu horretarako, herritarren eta tokiko administrazioaren *erlaziozko topaketa* horretarako, baldintza batzuk —fisikoak eta jokaerazkoak— ezinbestekoak dira, kultura politikoari dagokionez.

Baldintza fisikoez hitz egiteak² esan nahi du zenbait eremu berreskuratu behar direla: identifikaziozkoak, erlaziozkoak eta historikoak, Marc Augé-k (1998) dioen moduan. Espazio horiek muga fisikoa eduki behar dute —pertsonek horiek barne hartzeko gai izan behar dute—; historia egin ahal izateko, gutxieneko egonkortasuna izan behar dute —ikur eta erreferentziak eduki behar dituzte, ezagutu ahal izateko—; eta espazioarekiko eta gainerakoekiko erlazioak bultzatu behar dituzte.

2. Marc Augé-k (1998) dio *gehiegizko espazioa* dei dezakegunean bizi garela: esaterako, gero eta garraibide gehiago dago, eta beste leku batzuei buruzko ezagutza handiagoa dugu. Baina, bestalde, *ez-lekuak* sortzen ditu horrek. Ez-lekuetan, elkarrekin konektatzen gara, baina ez dugu elkarrekin topo egiten; horietan, ez dugu geure burua ezagutzen, eta gainerakoek ere ez gaituzte ezagutzen: *anonimaturako espazioak* dira, eta horiek egoa eta gizabanakoa mundu oso bat balira bezala goratzen dituzte; identitatea kristalizatu egiten da, eta osotasunerako tentazioa sortzen da.

Kultura politikoko aldaketek *egunerokotasunaren demokrazia* sakontzen duten prozesuetara garamatzate nagusiki (Max-Neef, 1994); hots, erlaziozko alderdiak —topaketa-alderdiak— sustatzera, herritarren artean nahiz Administrazioarekin kooperaziorako moduak ezarriz. Hortaz, bi oinarrizko gai adierazi ditugu: parte-hartzea eta kudeaketa-ereduak.

Parte-hartzea boterearen birbanaketatzat jotzen badugu, gizarte-egituraren posizio ezberdinetan kokatuko gara, bai maila indibidualean, bai Erakundeekiko. Maila indibidualean, gizarte-errealitateari buruzko esanahi-trukean parte-hartze handiagoa izateak —U. Hannerz-ek (1986) dioen moduan— kontzientzia konpartitu jakin bat eragiten du; hor, parte-hartzearen ikuspegi ezberdinetatik abiatuta, kontzientzia kolektiboa sor daiteke, bakoitzak errealitateari buruz duen pertzepzioaren berri besteei emanaz. Parte-hartze horrek *errealitatearen gizarte-eraikuntzako* prozesuetan oinarrituta egiten du lan (Berger eta Luckmann, 1979), baina baita dekonstruzioan oinarrituta ere; izan ere, esanahi-sistema indibidualak zalantzan jar ditzake. *Botere-banaketa* prozesu bat dela esan daiteke, horri esker, gizarte-errealitatearen plurideterminazioa egin baitaiteke; izan ere, gizarte-taldeei gaitasuna ematen die bakoitzak *errealitatearen bere bertsioa*³ izateko eta errealitate hori errealitate instituzionalizatuaren aurrez aurre jartzeko —eta, horrenbestez, hala jartzen da gizarte-taldea ere—.

Egunerokotasunaren demokrazian sakontzeko aipatu beharreko beste gauza bat publikotasunaren kudeaketa-ereduak dira. Boaventura de Sousa Santos-ek dio eredu horiek erantzukizun handia dutela «Estatu demokratiko parte-hartzailea berriro asmatzean»⁴, eta harekin bat gatoz. Estatuaren eta herritarren artean artikulaziorako eta erabakiak hartzeko espazioak sor ditzakete, plangintza estrategiko baterantz bideratzeko, gizarte-taldeen, horien beharren eta antolaketa-eta erlazio-moduen konplexutasuna barne hartuz.

Parte hartzeko mekanismoak ebaluatzeko, kontuan izango dugu zer gaitasun duen *hiri eraikitzaileak* eraikitzeko; hau da, ez bakarrik beste batzuen eraikuntzen/erabakien erabiltzaile edo hautesleak eraikitzeko. Horrexegatik eman behar diogu hizketa/elkarrizketatiko parte-hartzeari beste banatze-mekanismo batzuei baino garrantzi handiagoa. Izan ere, beste mekanismo horietan aurrez kodeturiko gaiei buruz erabakitzen dugunez, gutxiengo batek —Administrazioak edo beste gizarte-eragile batzuek— gizarte-errealitateari buruz duen ikuspegia biztanleria osoari ezar diezaioke.

Horiek dira herritarrengandik gertu dauden parte hartzeko egitura desburokratizatuek agerian jartzen dituzten ezkutuko kontuak: zuzeneko eraikuntza-

3. Kontzientzia hori onarpenaren hedapenean oinarrituta eraikiko litzateke, eta, horri esker, esanahiak eraiki daitezke denbora eta espazio zehatzen artikulazioaren bidez. Baina interesatzen zaiguna ez da elkartzeen ondorioz sorturiko identifikazioetara mugatzea, banakakotasuna gainditzen duten harreman praktikoetara iristea baizik. Hugo Zemelman-ek (1988) ongi adierazi zuen bezala, *gizarte dentsitate kritikoaren* kontua da, eta areagotu egiten da banakoaren eta komunitatearen arteko harreman dinamikoaren esparruan; azkenean, aukera eta bideragarritasun-gaitasunetan zehazten da. Autore horrek zioen moduan, «maila guztiz intersubjektibotik politika-mailaranzko iragaitean kokatzea dakar horrek, eta, beraz, aukera bideragarriak eraiki beharra ekartzen du».

4. Boaventura de Sousa Santos, *Participatory budgeting in Porto Alegre: toward a redistributive democracy, Politics and Society* (1988), Félix Sánchez-en aipua (2003).

prozesuetan parterik ez hartzean, demokraziari estereotipoen eta klixeen bidez ematen zaio zentzua eta praktikotasuna, ez bizipenen eta gogoeten bidez.

Erabakitzea mugatzen dena —proposaturiko alternatiben artean bat hautatzera— alternatiba horiek asmatu zituenak menderatuko du (Ibáñez, 1997:54).

Eta zer gai jo ditugu garrantzitsutzat Estatu demokratiko parte-hartzailea berriro asmatzeko?

1. *Plangintza parte-hartzailea*. Gizarte-mobilizazioa adierazten du, batik bat; izan ere, hainbat subjekturen eta gizarte-talderen arteko topaketa/hitzarmena eragiten du. Gizarte-mobilizazio hitza aipatu nahi dugu, horretarako beharrezkoa baita erabakiak hartzea —ez atxikimendua—, bai eta erabaki-hartze horren kudeaketa ere. «Eztabaida demokratiko bati ekitea dakar, proiektuei eta etorkizuneko eszenatokiei buruz nahiz horren eraginei eta alternatibei buruz» (Garrido, 2002: 134). Eta, batik bat, gizarte-aldaketak eragiten ditu, ezagueren eraikuntzaren eta praktikaren —jardunez ezagutzea— artikulazioan oinarrituta.

2. *Autodependentzia sortzea*. Bizitzaren errealizazioari eragiten dioten zenbait arlotan (ekonomia eta finantzak, teknologia, kultura eta politika) eta espaziotan (tokikoa, autonomikoa, nazionala, nazioartekoa) gero eta dependentsia handiagoa dagoenez, dependentsia horri aurre egiteko metodoen bidez lan egitean datza. Max-Neef-ek (1994:85) honako bide hau aipatzen du: «Hainbat espazio eta alorretan autodependentsia sortzea pertsonen benetako protagonismoaren bidez. Pertsona horiek garapen-prozesuak sustatzeko gai izan behar dute, eta eragin sinergikoa izan behar dute beharrak asetzen».

Autodependentsia hori interdependentsia horizontaleko erlazioek zehazten dute. Norabide anitzeko baldintzapenak daude, eta «honako hauek sustatzeko gai den prozesutzat jo behar dugu: erabakietan parte hartzea, gizarte-sormena, autonomia politikoa, aberastasunen bidezko banaketa eta identitate-aniztasunetikiko tolerantzia» (*ibidem*: 86).

3. *Antolaketa-mailen eta erakunde-mailen arteko artikulazioa*: arazoak konpontzeko baino gehiago⁵, ulertzeko; eragileak, eskalak, prozesuak eta prozedurak integratzeko. Horretarako, sistemaren konplexutasunari aurre egin behar zaio, *ezagutza eta erabakigarritasuna* erabiliz⁶.

4. *Kultura profesional espezializatuaren eta herritarren kulturen arteko topaketak*. Habermas-en proposamenak (1987) berreskuratuz, honako hau dio Julio Alguacil-ek (2000:37): «Ezagutza banatuan, espezialistak ez-espezialistarekiko nagusitasuna du»; gainera, sormen-gaitasuna urritu eta mendekotasuna areagotzen du, gizartearen osotasuna ulertzea zailtzen baitu.

5. Max-Neef-ek azaltzen du (1994:136) «arazoak konpontzea ezagutza-arloan dagoela, eta horretarako ezagutza zatikatu behar dela. Horrek ekintza zatikatuak eragiten dituenez, zaildu egiten da subjektuen arteko elkarlana; gainera, mendekotasunak sortzen dira, ezagutzaren espezializazioa dela eta».

6. Max-Neef-en hitzetan (1994), hautatutako erreproduktzio-estiloak sinergikoa izan behar du —printzipio autosuntsitzailerik gabea—, eta esperientzietatik ikasteko gaitasuna izan behar du, alternatibak eta aukerak onartuz/sustatuz, sistema atzeraelikatzen duten egitura parte-hartzaileen bidez.

Nabarmendu nahi dugu gizatasunaren zentzuari buruzko gogoeta oso lotuta dagoela gizartearen, komunitatearen, hiriaren, auzoaren, familiaren ulermenari; horretarako, espazio bakoitzean dugun parte-hartzean oinarrituko gara, bai eta horren konfigurazioaren bizipenean ere. Eredu horietako bakoitzean, kultur/bizipen topaketak birsortuko dituen komunikazio-ereduetan oinarritu behar da kudeaketa/ekintza sinergikoa; hots, hainbat talderen ezagutzak berreraikiko eta esplizituki adieraziko dituzten sozializazio-prozesuetan. Javier Malagón-en gogoeten arabera:

Informazio-trukeak, elkarrizketa eta atzeraelikadura (*feedback*) balioetsi behar dituzte komunikazio-ereduek; horren oinarritzko helburuak enpatizatzea, hizketakideen autonomia sustatzea eta lankidetzaren solidarioa finkatzea dira (...) Eredu horren arabera jarduteko, beharrezkoa da entzute aktiboaren gaitasuna garatzea (besteekin enpatizatzea eta horiek ulertzea, horien ibilbidea eta egoerak kontuan hartuta), diskurtsoa hizketakidearen ezaugarriei egokitzea (hainbat komunikazio-erregistroekin lan egitea), eta gai izatea igorlearen eta hartzailearen paperak txandaka trukatzeko (igor-har) Eredu horren helburua pertsonen eta gizaki-taldearen erlazio-egiturak aldatzea da, baina ez pertsonak eta taldeak aldatzea⁷.

2. Ezin da tokiko demokraziarik lortu deszentziorik, autogestiorik eta bizikalitaterik gabe, ezta eguneroko bizitza aintzat hartu gabe ere

2.1. Deszentrazioa

Deszentrazio terminoa darabilgu deszentralizazioaren ordez. Izan ere, gure ustez, bigarren termino horrek —bai teorian, bai praktikan— lurralde-gerturatzea adierazten du (beste zentro batzuk sortzea estrategiatzat hartuz), ez boterearen bidezko banaketa (espazio guztiak aintzat hartuz); eta azken hori da, hain zuzen, zentro guztien suntsipenarekin lortu nahi dena... Deszentrazio kontzeptua eraginkor bihurtzeko, beraz, globalizazioaren eta artikulazio komunitarioaren ildoan egin behar dugu lan.

Glokalizazioa

Aspalditik, praxi batzuetan, globalizazioaren mitoa alde batera uzten ari dira. Globalizazioa ez da mundu-mailakoa, eta ez ditu gure bizitzako logika guztiak barne hartzen. Merkatuari dagokionez —adiera zabalenean hartuta—, globalizazioaren funtzionamendu akastuna hobetzeko moduen bila ari dira. Beraz, globalizazioak Lur planeta bekaiztia apaintzen zuen eratzuna izateari utzi zion (Saturnori ostua, gainera), eta lurta guztien burua apaintzeko eratzun bihurtu zen. Estrategia berri horri glokalizazio deitzen dio gero eta jende gehiagok. Horrek lortu nahi duena da tokiko espazioen unibertso bakoitzean estrategia globalizatzaileak erabiltzea, tokiko hainbat estrategiarekin lehiatuz, horien esparruan bertan.

Lehen, ezinezkoa zen borroka: Lurreko eratzuna armen bidez bakarrik suntsi zitekeen, jendearen ahalmenetatik eta ezagutzetatik at zeuden esparruetan. Orain,

7. Oso interesgarria deritzogu Javier Malagón-ek (2003) azaldutako beste bi komunikazio-ereduak nabarmentzeari. Izan ere, bigarrenak Administrazio Publikoan aurkitu dugun eredu nagusiaren berri ematen du. Lehenari eredu erreferentzial deitzen dio; diskurtsoan ez da kontuan hartzen diskurtso hori hartzaileari egokitzea. Bigarren ereduak, berriz, garrantzia du hartzailearen limurtzeak, guk adierazitako norabideari jarrai diezaion; hartzaileak, beraz, objektu edo instrumentutzat hartzen da.

globalizazioa gure espazioetara ekarri dutenez, dauzkagun (edo eraiki ditzakegun) trebetasun eta ezagutza guztiez balia gaitzke. Horizontalki antolatzen bagara eta herri-kulturen jakinduria aintzat hartzen badugu, garaipena lor dezakegu. Baina, paradoxa dirudien arren, gero eta gertuago gaude porrotetik, onarpen eta mendetasun osotik; izan ere, galtzen badugu, geureaz baliatzen ez badakigu, geure buruari merkatuaren eta Estatuaren logika nagusiez —irabaziez eta legitimazioaz, hurrenez hurren— liluratzen uzten badiogu, jai daukagu.

Alternatibak era askotakoak izan daitezke (eta dira): esaterako, lurra okupatzea eta gure historia berreskuratzea. Adibidez, aurrekontu parte-hartzaileen gaiari dagokionez, Estatuko, merkatuko eta herri-kulturetako logika alternatiboak bateratzen ari dira —hurrenez hurren, demokrazia parte-hartzaileak, gizarte-ekonomiak eta eguneroko bizitzaren erreprodukzio hedatua—; horrenbestez, esparru instituzionala gainditu eta gure eguneroko bizitzaren autogestioa egin dezakegu.

Paradoxa indibiduala versus kolektiboa: artikulazio komunitarioa

Oiloa arrautza baino lehen: indibidualtasuna ala kolektibotasuna. Definizio konplexuko paradoxa da, baina, hala ere, artikulazio komunitarioarako aukera ematen du: «Autonomia indibiduala ahalbidetzen duena erlaziozko testuinguru bateko kide izatea da, ekosistema bateko kide izatea; ingurune bateko kide izate horrek nola-baiteko mendekotasuna sortzen du. Autonomia indibidualik ez da egongo besteen autonomiarik gabe» (Alguacil, 2000:13). *Besteak* termino hori, tokiko ingurunean kokatuta ere, ezin dugu modu trinkoan ulertu; hainbat behar/interesen multzotzat jo behar dugu. Esparru instituzionalaren ikuspegitik, politikari/teknikari/herritarren artean bereizketa tradizionala dago: multzo bakoitzean, autonomia indibidualetik hedatzen diren gizabanakoak agertzen dira; multzo horiek erlaziozko testuinguru bat dute oinarritzat, eta, era berean, *beste* multzo batzuetan banatzen dira: erlaziozko testuinguru bateko kide diren eta autonomia duten gizabanako adina multzotan... Eta horrela, behin eta berriz, espiral errekurtsibo batean.

Tokiko ekosistema batean aurki daitezkeen eta horren aberastasuna diren zentro ugari buruz ari gara. Ekoaniztasun horri bizirik eusteko, *topaketei* bide eman behar zaie, ekoaniztasunaren autonomia eta elkarrekiko dependentzia sustatzeko. Horrek zalantzan jartzen ditu espainiar Estatuko hainbat hiri eta herritako funtzionatzeko erak, zeren oinarrian kudeaketa-demokrazien parametroak baitituzte ⁸. Egia da lehen *tokiko autoritateen* kudeaketa zena orain *beste zentro* batzuetara ireki dela, eta *tokiko kudeaketaren festan* elkarte eta gizarte-mugimenduak agertu direla (beste mendekotasun batzuk ere sortu dira, ordea —diputazioak, gobernu autonomikoak, estatu zentrala, merkatuak—). Baina, askotan, herritarrengandik bakartu dituzten erlaziozko egitura eta espazioez baliatu dira horretarako. Badirudi sare bakar batean —erakundearen sarean— korapilatuta gelditu direla, eta ingurunearekin zituzten erlazioen dentsitatea eta aniztasuna galdu dituztela. Eta, nola ez, teknikari eta politikariak ere herritartasunaren sinplifikazio horiei lotu zaizkie: tokiko mailaz gaindiko beste autoritate batzuek eskaturiko zerbitzu eta

8. Kontzeptu horretan sakontzeko, T. R. Villasante-k (1998:15-43) dio, beste alderdi batzuen artean, «funtzionarioek, kasu onenean, guztientzat berdin kudeatzen dutela, eta ezin dietela kasu egin pertsona bakoitzaren egoerei, ezta interesen herri-sare bakoitzari ere, ez eta tokiko egoera zehatz bakoitzari ere» (*idem*: 31).

prestazioen *unibertsalizazioaren* (homogeneizazio-kutsu handikoa) alde egiteko, trebetasunak ahaztea eta entregatzea onartu zuten —herritarrekin eta tokiko hainbat sarerekin zuten eguneroko etengabeko lanean eskuratutako trebetasunak, hain zuzen—.

Zein dira gai garrantzitsuak gizabanakoa/komunitatea topaketarako?

- *Maila instituzional nahiz instituitzailean barne har daitezkeen politikarako eta gizarte-ekintzarako lekua uzten duten espazio integratuak.* Hau da: ekintza publikoaren kultura berrirantz urratsak emateko gai den *Egunerokotasunaren demokrazia* (Max-Neef, 1994). Kultura berri horretan, beharrak, eskariak eta gizarte-praxiak birkodetu egingo dira; baina ez erakundeen bidez bakarrik, baita subjektuen, denboren eta espazioen alteritatearen bidez ere. Horrenbestez, ez zaio utziko sistemari bizitzaren mundua kolonizatzen (Habermas, 1987). Hori esparru instituzionalean aplikatzen badugu, beharrezkoak izango dira parte hartzeko bideak —herrikoa, teknikoa eta politikoa—; horiek itxiak dira antolaketa aldetik, baina irekita daude informazio trukerako eta harremanetarako (Ibáñez, 1985). Parte hartzeko bide horiek, alternatiben artean hautatzeko aukera emateaz gain, alternatiba horiek eraikitzeko aukera ere emango lukete.
- *Subjektuen, denboren eta espazioen alteritatea.* Hots: egunerokotasunaren denbora eta espazioak berrikusteko beharra, politikariak, teknikariak eta gizarte-eragileak erabiltzen dituzten eraikuntza analitikoko berariazko irizpideak —eta, beraz, praxia— erabiliz, batik bat. Errealitatea ikusteko, eraikitzeko eta errealitateaz hitz egiteko oinarritzat hartu behar diren matrizeak sortzeko gaitasun handia erakutsi dute horiek, norabide eta dimentsio bakarreko moduak erabili dituzten arren —beren ordutegi eta lurraldeetan oinarrituta—. Kontua ez da familia-lana-kontsumoa hirukoa birsortzea, alde batera uzten baititu (eta, hortaz, baztertu egiten du, eta beharrezkoa izango da normalizazioaren bidez barne hartzeko esku hartzea) eta kanpoan uzten baititu (erabakiak hartzeko espazioetatik kanpo) gizabanakoaren eta komunitatearen arteko topaketa alternatiboak. Aitzitik, askapena eragitea da kontua: denboren askapena —kontsumorako eta lanerako erreprodukzioaz gaindi—, espazioen askapena —topaketetarako eta autoeraikuntza kolektiborako— eta subjektuen askapena —ordezkapenetik autogestiora igarotzea—.
- *Sistema autopoietikoak* (Maturana eta Valera, 1990). Hau da: etengabe autoproduzitzeko gaitasuna izatea komunikazioaren bidez, gizabanakoek kolektibitatean/kolektibitatearen bidez beren ekintzak bideratzeko eta horiei zentzua emateko duten potentziaren bidez. Beraz, autoprodukzio horrek mendekotasuna izango du ingurunearekiko, aldaketarako gaitasuna izango du eta autoprodukzio horren espazioetan sare horizontalak daude, erabakia eta produkzioa bateratzea erraztuko duen konplexutasun antolatua eragingo duena (materiazkoa eta gizartekoa).
- *Gizarte-sareak, beren eraikuntza eta autogestioa ziurtatuko dutenak.* Erlazioen intentsitate eta hedagarritasunari dagokionez, *gizarte-dentsitatearen* beharra eragiten du horrek. Erlazio horiei esker, posible izango da

erakundeak, egiturak eta gizarte-mugimenduak birsortzea (eraldaketaren bidez), hainbat motatako ekimenak sortzeko.

- *Herri-kulturetan sortu behar duten gizarte-identifikaziorako estrategiak.* Identifikazioa esanahiak sortzeko prozesutzat jo behar litzateke. Elkarrekintza eta komunikazioan oinarrituriko gizarte-fenomeno horrek inguruneko mundua ulertzeko gaitasuna ematen die gizabanakoei; eta, horretarako, beharrezkoa da erakundeetan eta gizarte-praxietan materializatzea. Ulertzen dugu identifikazioak kolektiboki eraiki behar direla, herri-kulturetan oinarrituta; izan ere, batetik, etnia, klase, genero eta adinaren arabera egiturazko korrontek lotzeko gaitasuna dute⁹; bestetik, berriz, kultur planteamendu berrientzat abiapuntuak sortzeko aukera ematen dute, egite kolektiboetan oinarrituz —horietan, soziabilitate-espazioetan besteekin elkarriketatuz parte hartzen da—.
- *Gertutasuna.* Julio Alguacil-ek (2000:286) dioenez, «erabakiak hartzeko prozesuan subjektuek esku hartzeko dituzten aukeren garapen-maila alderantziz proportzionala da jarduera esparruaren dimentsioarekiko. Hortaz, sinbolikoki barne har daitezkeen espazio-dimentsioak behar dira».

2.2. Autogestioa

Abiapuntua EZ izaten da beti¹⁰: indibidualizatzen gaituen desordenarik ez! (ez kendu Nekazaritzako Enplegu Plana! Gerrarik ez! Ez dugu mundu hau nahi, beste mundu bat posible da!). Hau da, ez dut nahi edo ezin naiz egon bizitzeko bakarrik; horregatik, ezin diet utzi ni indibidualizatzen jarraitzen. Horrek eraginda, beste batzuekin elkartzen naiz, eta adierazpen pertsonaletik erabaki kolektiboetara iragaten (identitatetik identifikazioetara).

Bestalde, bai estatu-komunismoak, bai ongizatezko gizarteak erakutsi dute Estatuak edo/eta merkatuak ezin dutela mundu duina sortu; izan ere, Estatuak eta merkatuak gizartetik bereizitako elementutzat jotzen dituzte. Hortaz, kaosaren indibidualizazio-prozesua sustatzen dute, eta jendea bere egitetik, bere bizitzaren kontroletik banantzen dute.

Gure ekintzak ez du botere-hartzean oinarritu behar (ez abangoardia batek matxinada sustatuta, ez alderdi bat sortu eta hauteskundeak irabazita), ezta jabekuntza ere (azken batean, hori botere-hartzea izaten baita, logika nagusien esparruan, gehienetan). Boterearen autogestio kolektiboan oinarritu behar du gure ekintzak, eta horren deuseztapena hartu etorkizun utopikotzat. Autogestioak ikuspegia aldatzen digu, boterea hartzetik egin ahal izatera iragaten baikara; horretarako, beharrezkoak dira jakinduria, trebetasunak eta nahiak. Gizarte-fluxuan, besteen jardueran eta besteekin jardutean oinarritzen den dimentsio kolektiboa adierazten du beti.

Boterearen autogestio kolektiboa eraikitzeko, lehenik, erresistentzia behar da; bai oposizio/kontzientzia mailan, bai sormen-elkarrekintzaren mailan. Bigarrenik, berrikuntzarantz eramango gaituen haustura behar da; izan ere, identitateen ukoa

9. Gai horri buruzko gogoeta sakonagorako, ikus Javier Encina eta J. Carlos Mejías (1997).

10. Testu zati hori John Holloway-ren (2001:73-81) testuaren birformulazioa da.

eta identifikazioen sustapena eragingo dituzten proposamen berriak sortuko ditu. Eta, azkenik, oposizio/elkarrekintza/berrikuntza eratuko duten parte hartzeko bideak behar dira; horiek prozesuan zehar eraikiko dira, egiten diren ekintza ugarien ondorioz. Beraz, autogestio-prozesuen eraikuntza indartzeko batu beharko diren hiru ekintza-lerroz ari gara: **parte hartzeko nahia** —hau da, prozesuan esku hartzeko motibazioa—, **parte hartzeko gaitasuna** —erabakiak eraikitzeko, hartzeko eta kudeatzeko foroak sortzea, diagnostiko batean eta plangintza parte-hartzaile batean oinarrituta—, eta **parte hartzen jakitea** —beharrezko pres-takuntza lantzea, antolaketa-mailan aldaketak eragiteaz gain, maila sinbolikoan ere aldaketak eragiteko, baita kultur gramatikan ere—; hots:

Gizarte-erlazioak eta -elkarrekintzak egituratzen dituzten arauen sisteman. Horrek barne hartzen ditu objektuen irudikapena eta egoeren iragaite normala; horiek kode estetiko eta portaera-arau guztiak zehazten dituzte, gizartean egokitzen jotzen denaren arabera. Kultur gramatikak gizartean maila guztietan egunero errepikatzen diren erritu ugariak antolatzen ditu. Espazioaren eta denboraren gizarte-banaketak ere barne hartzen ditu —horiek mugimendu-moduak eta komunikazio-aukerak zehazten dituzte— (AFRIKA, 2000:17-18).

2.3. Bizi-kalitatea: erlazioaren, ekonomiaren eta ingurumenaren esparruan “korapilatzea”

Bizi-kalitatea kontzeptuari dagokionez, bi ikuspegi nagusi azter ditzakegu, gutxienez:

- Lehena, bigarrena baino instituzionalagoa, hirurogeiko hamarkadatik aurrera aurki dezakegu: ikerketa ugari neurtu nahi izan zuten gizarte-eraikuntza hori. Aldi berean, OCDEren txostenak agertu ziren: bizi-kalitateari buruzko adierazleak sortzeko metodoak ikertzea zen horien helburua. Adierazle horiei esker, Ongizatezko Estatuaren garapenari buruz teoriza zitekeen, gertatzen ari ziren bizitza-hobekuntzen instrumentalizatzailetzat jotzen baitziren. Ikuspegi horrek adierazle kuantitatiboak barne hartzen ditu nagusiki; bestalde, horren ereduak gizarte-balio nagusiekin bat datozen garapen-ildoak sustatzeko neurriak ezartzen dituzte (neurri terminoaren bi adierei buruz ari gara: bai neurtzea, bai neurriak hartzea).
- Bestalde, ia aldi berean, *gizarte-mugimendu berriak* deitu direnen ildotik (Riechmann eta Fernández Buey, 1999), 68 ondorengo protesta-zikloen ondoren, herritarren aldekoagoa zen ikuspegia sortzen hasi zen, gizarte-balio berrietan oinarritua: besteak beste, ekologismoan, bakezaletasunean eta feminismoan. Balio horiek antolaketa- eta erlazio-modu berriak ekarri zituzten: bai gizarteko beste subjektu batzuekin, bai ingurumenarekin, bai Merkatuarekin eta Estatuarekin erlazionatzekoak. Bizi-kalitateari buruzko ikuspegia konplexuago bihurtu zen: izaera ekonomizistako eredu arrazionaletatik harago zihoan —horiek antolaketa instituzionaleko balio eta formen eragina zuten—, eta eguneroko bizitzako eruedetara hurbiltzen zen. Alde horretatik, kontzeptua *subjektibizatu* egin dela esan genezake, gizarteko subjektuen behar eta potentzialitatez betetzen baita; bestalde, izaera indibidualagoa duenez, eraikuntza kolektiboaren beharra sortzen da. Ezbairik gabe, horren ondorioz, ongizate kontzeptua eta horrek babesturiko garapen-eredua konplexuago bihurtzen dira.

Ongizate ideia estatikoari dagokionez, autore batzuek (Villasante, 1998:15) nahiago dute kontzeptua gehiago zehaztu eta hobeto bizi-idea esan; izan ere, bi kontzeptuak polisemikoak izan arren, badirudi ongizate kontzeptuak “bizitea” baino pasiboagoa den “izatea” adierazten duela; eta beti erlatiboa den “hobeto” baino absolutuagoa den “ongi” adierazten duela. Ez gaude ziur ba ote dakigun “ongia” zer den hobetu daitezkeen hainbat egoeratan; gainera, ez gaude ziur egoera horretan kokatuta “izaterik” dagoen, bizi-prozesuak erronka eta potentzialitate berriak sortzen ari baitira etengabe.

Prozesu ideia berreskuratzen dugu; hots, dinamika ideia, emergente ideia, instituzio sortzen denaren ideia (Merkatuaren eta Estatuaren arteko espazioan). Horretarako, erlaziozko ereduetan oinarritzen gara: horiek *birlotu* egin behar dute, eta komunitaterantz ireki; gainera, denboran eta espazioan mantentzeko gai izan behar dute.

Horri «hirugarren sektorea deitzen diote autore batzuek (Coraggio, 1999). Batetik, Estatu eta Merkaturik ez dena da —erantzun konbinatua ematen dio Ongizateko Estatuaren krisitik eratorritako gizarte-prestazioen gainbeherari—, eta, bestetik, Merkatu Libreak eragindako gizarte-kanpokotasunetikiko autodefentsarako egiturak dira» (J. Alguacil, 2000:177). Bere beharrak eta horiek asetzeko moduak definitzeko gai den logika garatzen du: Estatuaren aurrean, herritar gisa (ez erabiltzaile gisa); Merkatuaren aurrean, *giza eskalako* garapen sozioekonomikoaren eraikitzaile den subjektu kolektibo gisa. Espazio horietan dira, hain zuzen (taldekoak, komunitarioak eta tokikoak) “giza eskalaren” dimentsio argiagoko dutenak. Izan ere, «eskala horretan sozialtasunak ez du indibidualtasuna ezereztzen; indibidualtasunak sozialtasuna susta dezake» (Max-Neef, 1994:88).

Konplexutasuna argitara ematen den planoetan kokatzen gara: bizi-kalitateaz hitz egitean, gai objektibagarriez (banatze-ekalen bidez neur daitezke) nahiz gai subjektiboez (hizkuntzaren bidez egin/esan daitezke) ari gara. «Nahitaezkoa da objektibotasunaren eta subjektibotasunaren elkargunea zein den jakitea, baita aldi berekoak direla eta elkar indartzen dutela jakitea ere. Ildo horretatik, bizi-kalitateak subjektibotasunaren eta objektibotasunaren bat-egitea adierazten du, gertaerei balioak eranstea eta balioei gertaerak eranstea gaitasunak zehaztutako sintesia, emozioak arrazionaltasunarekin nahasiz» (J. Alguacil, 2000:117). Ongizate kontzeptu horretan, kontuan hartzen da Estatuaren, Merkatuaren eta Gizarte Sareen beharrezko osagarritasuna; bestalde, Hirugarren Sektoreak bere estrategiak eta bere garapen-ereduak eraikitzea sendotu beharra ere hartzen da kontuan.

Bizi-kalitate kontzeptua subjektuarekin, horren bizi-prozesuekin eta esperientziekin aurkitzen da berriro. Izan ere, esperientzia horietan ageri dira subjektuen beharrak eta behar horiek asetzeko moduak (materiazkoak eta materiagabeak) edo behar-asetzaileak. *Behar* kontzeptua Max-Neef-en proposamenen arabera ulertuko dugu:

Gabeziez gain, giza potentzialitate indibidual eta kolektiboak ere badira.

Behar-asetzaileak, berriz, izateko, edukitzeko, egiteko eta egoteko moduak dira. Indibidualak edo kolektiboak izan daitezke, eta beharren eguneratzea bideratzen dute.

Azkenik, ondasun ekonomikoak objektu edo tresnak dira. Horien bidez, behar-asetzaileen eraginkortasunean eragin daiteke, positiboki nahiz negatiboki.

Beharren, behar-asetzaileen eta ondasun ekonomikoen arteko lotura etengabea eta dinamikoa da. Horien artean dialektika historikoa pizten da. Ondasun ekonomikoek behar-asetzaileen eraginkortasunean eragin dezakete eta behar-asetzaileak oinarritzkoak izango dira ondasun ekonomikoak sortzeko. Elkarrekiko kausazio horren bidez “kulturaren osagai eta definizio bihurtzen dira”, eta garapen estiloen erabakigarri (Max-Neef, 1994:56-57).

Gaur egun, errealitate urbano konplexuan eredu horiek guztiak elkarrekin bizi direla esan genezake. Isabel González-ek (2000:125) honako hiru hauetan biltzen ditu:

- a. *Eredu heteronomoa edo gizarte-ongizatearen eredu*: alde batzuk gora-behera, Mendebaldeko demokrazia ordezkatzailen eredu da. Zerbitzuak ematen, sektore publikoa gailentzen da, eta Administrazio Publikoa arduratzen da erabakiak hartzeaz, plangintza egiteaz eta kudeaketaz. Herritarrei kontsultatu egiten zaie, eta erabiltzaile gisa hartzen dute parte. Bizi-kalitatea ingurune fisiko, sozial eta kulturalean oinarritzen denez, gizarteari eta ingurumen-iraunkortasunari buruzko gaiek ez dute garrantzi handirik. Hortaz, gizarte, ekonomi eta kultur arloetan, biztanleriaren kopuru handi bat alde batera uzten da.
- b. *Eredu neoliberal*: ekonomian arau falta eta malgutasuna dira nagusi. Merkatuari dagokio behar-asetzaileak emateko funtzio nagusia; Estatuak, berriz, Merkatutik kanpo dauden taldeei lagundu besterik ez du egiten. Parte hartzea bezero-mailara murrizten da —zerbitzuak lortzeko/jasotzeko gaitasun indibidualaren arabera—; bizi-kalitatea, berriz, erosteko ahalmenarekin lotzen da. Hirian dituen eraginak honako hauek dira: hiriko bizitza korapilatzea eta sinplifikatzea, eta gizartearen dualizatzea.
- c. *Eredu autonomoa edo emergentea*: demokrazia parte-hartzaile deiturikoen esparruan dago. Estatuaren eta Merkatuaren artean artikulaziorako eta erabakiak hartzeko espazioak daude —hau da, hirugarren sektorea; herritarren multzo eta sareak, gizarte-mugimenduak eta elkarteak barne hartzen dituena—. Herritarrek tokiko mailan erabakiak hartuz eta plangintza eta kudeaketa eginez hartzen dute parte. Bizi-kalitate kontzeptuak parte-hartzea eta iraunkortasuna uztartzen ditu, *hobeto bizitzea* lortzeko. Konplexutasunean eta aniztasunean oinarrituta, barietatea eta bizikidetzaren sustatzen duten hiri ez-baztertzailak lortu nahi dira.

Ez dugu gai horietan askoz gehiago luzatu nahi; eztabaidatzen eta sakontzen jarraitzeko, hau bakarrik adierazi nahi dugu: hobeto bizitzeko beste eredu batzuei aukera emateak esan nahi du eredu urbano eta ekonomikoen beharra dagoela, bizi izatea¹¹ eraikitzeko aukera emango duten espazioak sortzeko beharra, eta,

11. T. R. Villasante-ren arabera (1998), *bizi izatea* ulertzeko, gure ikuspegia honako puntu hauetan oinarritu behar dugu: egunerokotasun konkretuan, bizikidetzan, eta, noski, hori giltzatzea eta lotzea posible egiten duten espazioetan, non lotura horiek sare konplexuak sortzen dituzten, eta horietatik afektibotasunaren bidez, berehalakotasunaren bidez eta adierazkortasunaren bidez esaten den (esanak garen). Mugimenduan dagoen zerbaite da, dialektikoa eta gatazkatsua...

espazio horietan, autonomia eta botere-banaketa sustatuko dituzten eredu politiko parte-hartzaileen beharra.

Bizi-kalitateaz hitz egitea horren konplexutasuna berreskuratzea da. Izan ere, zenbait kontzepzio eta ekintza barne hartzen ditu: eredu urbanoak —sozialterako eta identifikazio-sorkuntzarako espazioak—, eredu ekonomikoak —gizakien beharrei erantzuteko gai direnak— eta ekintza publikoko ereduak —indibidualtasunetik gizarte-sareetara, erabiltzaile izatetik herritar izatera—.

Eredu urbano berriak

Topaketen hiria

Eredu ekonomiko berriak

Gizaki-mailako garapena

Ekintza publikoko eredu berriak

Erlaziozko esperientziak esperientzia indibidualen aurrean

Gizartean esku hartzeko ereduak gizarte-konplexutasunari aurre egin behar diote. Jesus Ibáñez-ek (1990) dioten moduan, subjektuak eta balioak onartu eta berreskuratu beharra daukate eredu horiek, bai ezagutzan —gizarte-eraikuntzan—, bai gizarte-ekintzan —gizarte-praktiketan—. Gizartean esku hartzeko ekintzek, beraz, programen esparrua gainditu behar dute; izan ere, gizarte-beharretarako eta behar horiek asetzeko ildo bakarreko zentzu finkoak ezartzen dituzte, baliabide instituzional ugarien bidez eta indibidualtasunean oinarrituta.

Adierazitakotik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Konplexutasunaren paradigman oinarrituta lan egiteko beharra, hainbat dimentsioren osagarritasuna hartzen baitu kontuan: eskalen, prozeduren eta eragileen dimentsioa.
- Objektuen, sistemen eta egituren kopurua gero eta handiagoa denez, gizartearen esku-hartzeak ezohiko baliabideak sustatu behar ditu: gizarte-kontzientzia, antolaketa-kultura eta kudeaketa-gaitasuna, herri-sormena, autosufizientzia, elkartasuna...
- Subjektibotasunaren aldarrikapena: bizi-kalitatearen eraikuntzan eta praktikan eragileak eta eragile horien balioak sartzeari dakar; dependentsia/autonomiaren eta indibidualtasun/kolektibotasunaren paradoxa berreskuratzea. Izan ere, autoeraikuntza ezin da banandu hori ahalbidetzen duten gizarte eta erlaziozko testuinguruetatik.
- Bizi-estrategia kolektiboak onartzeko eta indartzeko beharra, horien kultur moduetan, identifikazioetan, balioetan eta praktiketan oinarrituta.

Ikus daitekeenez, parte-hartzea ez da lau urtean behin bozkatzera joatea bakarrik, ezta Estatuko betebeharrak bete eta konstituzionalki ezarritakoa errespetatzea bakarrik ere... Ezta Andaluziako Juntako presidentek bere alderdiaren izenean azaldu diguna bakarrik ere (2003tik 2007rako udal-gobernuen osaketari dagokionez): demokrazia sakontzea, informazio bideak sortuz eta iritziak jasoz.

Eredu parte-hartzaileak nahi baditugu, erabakiak elkarrekin hartzea eta erabakiak kudeatzea eta gauzatzea sustatu behar dugu. **Baina, nola lortu hori?** Lehenik, oinarritzat hartu behar dugu inork ez dakigula, edo guztiok dakigula zerbait; beraz, ez dago irakatsiko digun *maisurik*. Elkarrekin egindako topaketen bidez ikasi behar dugu; bakoitzak bere martxan, eta abiapuntuko geure interesak onartuz.

2.4. Komunikazio- eta informazio-ereduak

J. Ibáñez-ek honako hau dio *A Contracorriente* liburuan (1997:127):

Lehenengo iraultzan, gizakiak gauzatze-lanetatik kanpo geratu ziren. Bigarren iraultza industrialean, zenbaketa (sortze) lanetatik kanpo. Hirugarren iraultza industrialean, antolaketa (erabakitze) lanetatik kanpo ari dira geratzen. Robotek ordezkatzan dituzte giza subjektuak, robot-asmatzaileen asmatzaileek. Gero eta gizaki gehiagok dute gailu robotikoetako pieza edo mekanismoen funtzioa.

J. Ibáñez-ek jarraitzen duenez, iraultza horiek guztiak malkar baten ertzean jartzen gaituzte. Norako bakarrari jarrai diezaiokegu: gauzak diren bezalakoak direla eta bestelakoak ezin direla izan erakusten digun amildegirantz. Gogoeta horiek esku-hartze publikoen esparruan aplikatuz gero, hau esan daiteke: proiektuak programen amildegi suntsikorrak irensten ditu berriro ere; eta etika ideologikotik erantzukizunen etikara iragaten da¹², egokitzen gatzaizkion mundu horretan/ mundu horren aurrez aurre, aurrean makurtzen gatzaizkion mundu horretan/ mundu horren aurrez aurre.

Deskribatu dugunaren arabera, komunikazioaren nagusitasuna ezinbestekoa da gizarte-praktiken ikuspuntutik; izan ere, prozesu horietan, elkarrekintza bidez eraikitzen dugu gizarte-errealitatea, geure burua gizarteko subjektu gisa eraikiz. Kapitulu honetan bertan, zenbait komunikazio-prozesuren arteko ezberdintasunak aipatu ditugu: komunikazio-prozesu batzuetan informazioa mugatua da, noranzko bakarrekoak direlako —igorlea eta hartzailea— ezin dira trukatu; eta beste prozesu batzuetan, berriz, igorle eta hartzaile izan zaitezke, aldi berean. Komunikazio-prozesu horiei noranzko ugariko prozesuak dei diezaiekegu, eta horiek dira aproposenak gero eta askotarikoagoa eta konplexuagoa den gizarte-errealitateko sektoreak ez baztertzeko.

Aipatu dugunaren arabera, ideia bat datorkigu burura; alegia, kudeaketa publikoko eredu aldaketa eragingo duten proiektuez hitz egitean, komunikazio-eredu eta -moduak aurkitzen saiatu behar dela: erlazio-egituretan aldaketak eragingo dituzten eredu eta moduak —herritarren arteko, horien eta Administrazioaren arteko, eta, nola ez, eskala eta ekintza-esparru ezberdinen arteko erlazio-egituretan—.

12. Liburu honetan bertan, J. Ibáñez-ek azalpen teoriko bat proposatzen du, eta praktikaturiko hainbat adibide adierazgarri ematen ditu, etika hauei buruz: «Erantzukizunaren etikak errealitate kontzeptuari erantzuten dio (sabela betez gero, inor ez barregarri), eta kontziente da (bitartekoen kontziente gara, baina ez helburuen kontziente), zientzian oinarritzen da (zientziak gauzek nola funtzionatzen duten galdetzen du; ideologiak gauzak diren bezalakoak zergatik diren galdetzen du; eta bestelakoak izan ote daitezkeen), eta gaizki dagoena ondo dagoela esateko eskatzen du (bide bat ona da, ona dela esaten dugulako)» (1997:263).

2.5. Eguneroko bizitza aintzat hartzea eta birsortzea

Hiru arazo nabarmendu dira herri-kulturekin eginiko lanean:

- Lehena, hizkuntza idatzia unibertsala dela eta gainerako hizkuntzentzako ulergarria dela pentsatzea. Idatzizko kodifikazioen bidez herri-kulturen bereizgarriak zehazten saiatzea alferrikakoa da, soinu-uhinak teleskopio bidez ikertzea bezain alferrikakoa.
- Bigarrena, herri-kulturez singularrean hitz egitea, horrek herri-kulturen ezaugarri garrantzitsuenetako bat hausten baitu: aniztasuna.
- Hirugarrena, kultur jabetzea nabarmentzea. Izan ere, edukiei begiratzeraz behartzen gaituenez, bigarren mailan uzten dira egunerokotasuna bizitzeko moduak.

Teoria unibertsal bat egiteko asmorik ez dugun arren, esan dezakegu herri-kulturek bakarrik lortu dutela globalizazioaren aurrean koherentziaz bizirautea. Globalizazioaren aurkako mugimendu alternatiboa globalizatu egin da: plano horretantxe diharduen alternatiba bihurtu da, globalizazioaren logika eta printzipioak erabiltzen baititu. Kapitalismoak sorturiko estrategia berria da herri-kulturen erronka berria —eta, era berean, bizirauten jarraitzeko aukera—: glocalizazioa, hain zuzen. Estrategia horrek mugimendu alternatiboa desegin du, eta herri-kulturak deuseztatu nahi ditu, euren esparruan. Herri-kulturek, ordea, bizitza-moduak direnez, egokitzeko gaitasun handia dute eta horrek erresistente egiten ditu, baina, horrez gain, sistema nagusiarekiko bizi-alternatiben sustatzaile ere egiten ditu. Herri-kulturek IZATEA —identitatea— alde batera uzten dute, eta EGOTEA —identifikazioak— bihurtzen dute garrantzitsu (hau da, erlazioen dimentsioa individualizazioaren gainetik). Horrexegatik ez dute garrantzirik edukiek, eta bai, ordea, erlazioak denboran eta espazioan bizitzeko moduek. Zertarako? Eguneroko bizitza-moduak erreproduzitzeko, horiei esker bizirauten baitute pertsonen arteko loturek ikuspegi kolektibotik.

Zientzia alternatiboan, bi korrante deskribatu dira:

- Herri-kulturak baztertu dituen, atzerakoi edo ezjakintzat jota.
- Herri-kulturak IZATEA kontuan hartuta, herri baten identitatea alderdi positibotzat jota.

Bi postulatuek balio izan dute herri-kulturen potentzialitate antisistemikoak, neurri batean, desegiteko.

EGOTEA jainkorik eta nagusirik gabeko mundua da, pertsona gisa bizitzeko aukera bakarra..., besteak eginez onartzekoa —ez gizarteko rolen arabera—.


Eguneroko bizitzan garrantzia duena ez da edukia, baizik eta beste hau: desordenen sareak sortuz kaosa ordenatzean, mugez galdetzen digu mugak gaindituz; horrela, galdera irekita uzten du, eta guk oinarritzat hartzen dugu mundu-ikuskera eraikitzen hasteko. Era berean, itxi egiten du ordenatzeko, eta irekita uzten du kaosaren sormen-esperientziak beregan eragina izan dezan.

Askotan, eguneroko bizitza eta masen kultura nahasten dira, baina, egiaz, hau da gertatzen dena: merkatuak eta estatu hegemonikoak eguneroko bizitza kolonizatu nahi dute eta masen kulturak herri-kultura ordezkatzeari. Egunerokotasunak berekin dakarren esklabotasuna eta alienazioa haustearen alde daude eraldaketaren aldeko hainbat teorialari. Horrela, ordea, antagonistatzat jotzen dituztenen helburuei lagundu besterik ez diete egiten.

Lehen esan bezala, tokikotasuneko aldaketa oro egunerokotasunaren espazio eta denboretatik abiatuko da; horietan sortzen dira masen kulturak sorturiko idealarekiko ezberdinak izatearen beldurrak, ziurtasunak eta pozak. Eguneroko denbora eta espazio horiek aukera ematen dute hainbat egoeratan parte hartzeko eta, horrela, aldaketa indibiduala eta kolektibotasunetiko eraldaketa errazteko. Izan beharra sortzen da, baina ez kanpoko ariketa gisa (inposatua/onartua), autoerakitako eta autogestionatutako konpromiso gisa baizik.

Eguneroko bizitza aintzat hartzeko eta birsortzeko abiapuntutzat hartzen dugu esperientziak berreskuratzea, bizipenen autogestioa eta oroimenaren berreraikuntza. Abiapuntu dira, eta, aldi berean, eguneroko bizitzaren kolonizazioaren lehen balazta. Hortik aurrera, gaitasun kolektiboak erabili behar dira, sentsibiltate eta aukera zentzuekin batera; une bakoitzean, *irekitzeko* norantz *ixten* dugun jakiteko. Izan ere, *ixteko ixten* badugu, fosilizazioa sustatzen dugu; *irekitzeko irekitzen* badugu, berriz, masen kulturaren balioak sustatzen ditugu.

EGUNEROKO BIZITZA ETA TOKIKO DEMOKRAZIAREN DIALEKTIKA ERAIKITZAIL-DESERAIKITZAILEA



1. Benetazkoak konpromisoak dira, hurreman eta erate inoizak, ezin dira aurritu, erostak eta elkarren artean erabiltzek. 2. Indibidualista eta deszentralizatzen, nola inkomunikatzen ez diren. 3. Indibidualista ez diren. 4. Indibidualista ez diren. 5. Indibidualista ez diren.

Bibliografía

- AFRIKA, Grupo Autónomo eta beste (2001): *Manual de la Guerrilla de la Comunicación*, Virus, Bartzelona.
- Aguilar, J. (2001): *La Utopía Posible*, Diario de Sevilla, 2001-04-18.
- Alguacil, J. (2000): *Calidad de vida y praxis urbana*, CIS, Madrid.
- Augé, M. (1998): *Los no Lugares*, Gedisa, Bartzelona.
- Berger, P. L. eta Luckmann, T. (1979): *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Caballero, Y. (2001): *El Reparto: la participación ciudadana en Las Cabezas de San Juan*, Universidad Autónoma de Barcelona, argitaragabea.
- Coraggio, J. L. (1999): *Política social y economía del trabajo*, Miño y Dávila, Madrid.
- Díez, V. (2001): *Participación social. Un instrumento para la democracia*, El Periódico, Las Cabezas de San Juan.
- El Reparto, Equipo (2001): *Reparto o Barbarie. De cómo transformarse y pasar de ser consumidores a vecinos*, El Periódico, Las Cabezas de San Juan.
- , (2002): *El reparto: investigación-acción-participativa y presupuestos participativos en Las Cabezas de San Juan*, in C. Lorenzana (arg.): *Tomamos la palabra*, Icaria, Bartzelona.
- Encina, J. eta Mejías, J. C. (1997): *Nacionalismo y culturas populares: una lucha por el tiempo y el espacio*, in Colectivo de Estudios Marxistas (koord.) *Nacionalismo-internacionalismo: una visión dialéctica*, Muñoz Moya, Sevilla/ Bogotá.
- Encina, J. eta Rosa, M. (1999): *La Ideología del poder y el poder de las ideologías populares*, Cuchará y Paso Atrá, Sevilla.
- , (2000): *El gran teatro del mundo, o de cómo los ayuntamientos intentan repartir papeles, organizar espacios y marcar tiempos*, in T.R. Villasante et al. (koord.), *La Investigación Social Participativa*, El Viejo Topo, Bartzelona.
- , (2003): *Entre el reformismo y la autogestión: El Reparto en las Cabezas de San Juan*, in E. Ganuza eta C. Álvarez (koord.), *Democracia y presupuestos participativos*, Icaria, Bartzelona.
- Freire, P. (1988): *Pedagogía del Oprimido*, Siglo XXI, Madrid.
- Garrido, J. (2002): "El análisis de redes en el desarrollo local", In T.R. Villasante et al. (koord.), *Prácticas locales de creatividad social*, Viejo Topo, Bartzelona.
- Genro, T. (1998): "Oposición estratégica", *Cuchará y Paso Atrá*, 7, Sevilla.
- eta de Souxa, U. (1997): *Orçamento Participativo*, Fundação Perseu Abramo, Sao Paulo, Brasil.
- González García, I. (2000): "La variedad urbana: una condición necesaria para la calidad de vida en la ciudad", En Ciudades habitables y solidarias, *Documentación Social*, 119 (apirila-ekaina).
- Habermas, J. (1987): *Teoría de la acción comunitaria*, Taurus, Madrid.
- Hannerz, U. (1986): *Exploración de la ciudad*, Fondo de Cultura económica, México.
- Heller, A. (1998): *Sociología de la vida cotidiana*, Península, Bartzelona.
- Holloway, J. (2001): "Doce tesis sobre el anti-poder", in T. Negri et al., *Contrapoder, Una introducción*, De Mano en Mano, Buenos Aires.
- Ibañez, J. (1985): *Del algoritmo al sujeto. Perspectiva de la investigación social*, Siglo XXI, Madrid.
- , (1990): "Introducción a los nuevos avances de la investigación social. La investigación de segundo orden", in *Suplemento Anthropos*, 22, Bartzelona.
- , (1997): *A contracorriente*, Fundamentos, Madrid.
- Ibañez, T. (1995): "Ciencia, retorica de la "verdad" y relativismo", *Archipiélago*, 20, Madrid.
- Ingrao, P. (1977): "¿Democracia burguesa o estalinismo? No: democracia de masas", in batzuen artean, *El marxismo y el estado*, Avance, Bartzelona.

- Lerena, C. (1984): "Educación", in S. del Campo (koord.), *Tratado de Sociología*, Taurus, Madrid.
- Lindón, J. (koord.) (2000): *La vida cotidiana y su espacio-temporalidad*, Anthropos, Bartzelona.
- Malagón, J. (2003): "Comunicación y ciudadanía", in T. Aguilar eta A. Caballero (kood.), *Campos de juego de la ciudadanía*, Viejo Topo, Bartzelona.
- Mandly, A. (1996): "Echar un Revez", *Cultura: Razón Común en Andalucía*, Diputación de Málaga.
- Maturana eta Varela (1990): "Sistemas autopoieticos", in Ibañez (koord.), "Nuevos avances de la investigación social de segundo orden", *Anthropos*, **22**, Bartzelona.
- Max-Neef, M. A. (1994): *Desarrollo a Escala Humana*, Icaria, Bartzelona.
- Navarro, C. J. (1999): *El sesgo participativo*, CIS, Córdoba
- Negri, T. eta beste (2001): *Contrapoder. Una introducción*, De mano en mano, Buenos Aires (Argentina).
- Pont, R. (2000): *Momento Político Nacional e Ações do Vereador do PT*, Fundação Perseu Abramo, Sao Paulo, Brasil.
- Riechman, J. eta Fernández Buey, F. (1999): *Redes que dan Libertad*, Paidós, Bartzelona.
- Rosa, M. eta Encina, J. (2001): "La Pañoleta: historias de exclusión en la locura del anonimato", in E. Rúa (koord.), *Espacio y Estigma en la Corona Metropolitana de Sevilla*, Diputación de Sevilla.
- Sáez, J. (1995): "El sujeto excluido", *Archipiélago*, **13**, Madrid.
- Sánchez, F. (2003): "El presupuesto participativo en Sao Paulo: nuevos desafíos para la gestión democrática", in E. Gamuza eta C. Álvarez (koord.), *Democracia y presupuestos participativos*, Icaria, Bartzelona.
- Santos, B. (2003): *Crítica de la razón indolente*, Desclée, Bilbao
- Vargas, H. (1999): "Crisis y reforma desde la participación en América Latina", *Cuchará y Paso Atrá*, **7** (otsaila-apirila), Sevilla.
- Villasante, T. R. (1998): *Del desarrollo local a las redes para mejor vivir*, Lumen, Buenos Aires (Argentina)
- Zemelman, H. (1988): "Comentarios para iniciar un debate", in T. R. Villasante (koord.), *Las ciudades hablan*, Nueva Sociedad, Bogotá.

